

“Uste duguna baina aldaketa gehiago ikusi beharko ditugu”

IMANOL RUIZ ARROA BEHEKO BIZTANLEA

Jakin nahi dugu 2050.urtean Zumaia nolako izango den eta horregatik Imanol Ruizi galdera batzuk egin dizkiogu. Imanol Arroakoa da izatez baina Zumaia ongi ezagutzen du, bere egunerokotasunaren zati bat bertan egin ohi du eta.

Kanpotar gehiago egongo al dira bertakoak baino?

Gehiago ez dakit baina orain daudenak baino gehiago seguru.

Zumaiako gazteak herrian geratuko direla usten duzu?

Etxebizitza politika aldatzen ez bada agian aldamenetako joan beharko dira.

Ondorengo urteetan turismoak gora egingo duela uste duzu?

Dagoeneko egin du, askoz gehiago ere ez pentsa izango danik.

Pobrezia etorriko dela uste duzu?

Arrisku galanta, pobrezia pobrezia ez dakit, baina hain moderno eta hain ondo bizi ote garen ere dudan ipiniko nuke.

Nola mugituko dela uste duzu Zumaiako jendea herrian bertan?

Nik uste dut egokiena 50 urte atzera eginda bezala, oinez. Zumaia, Zumaiatik irten ez denarentzat agian handia irudituko zaio baina hiri haundi bateko “dos manzanas” da herri guztia.

Klima aldaketa dela eta Zumaiako leku batzuk kaltetuta ikusen al dituzu? Hala bada, zer leku?

Kaltetuko direla seguru, kostaldea agian uste duguna baino gehiago aldatuko da.

Klima aldaketa dela eta zer arazo izan ditzazke Zumaiak?

Marea bizietan berriz ere orain dela urte asko atzera bezala, agian, kaleak ureztatu egingo dira.

Zumaiako herritarrek alde egin beharko dute klima aldaketaren ondorioz?

Ez dut uste horretara iritsiko denik baina uste duguna baina aldaketa gehiago ikusi beharko ditugula bai.

Zure ustez robotek egingo al dituzte gaur egun herritarren egiten dituzten gauza batzuk?

Ez dut uste zumaian 2050. urtean robotak izango direnik barrendero.

Zure ustez herriko ohiturak eta hizkuntza mantenduko dira?

Ahal den heinean bai baina jendea argi ez bada ibiltzen galtzeko joera hartuko du.

Bizimodu okerrago batean biziko al gara? okerrera egingo du?

Orain egiten ditugun ohitura asko aldatzen ez baditugu bai, lehen esaten nizuna, ordenadorea zer da ona edo txarra? Mugikorra zer da ona edo txarra? Niri ez zait normala iruditzen 10 urteko mutil koskor batek 5 edo 6 ordu mugikor bat behar izatea egunean, niretzako "es una locura" esaten dena da.